

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Eraikinen ikuskapen teknikoaren (EIT) egiteko dirulaguntzen deialdiaren laburpena

BDNS (Identif.): 887097.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/887097>.

ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOA (EIT) EGITEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIAREN LABURPENA

Alkatearen otsailaren 12ko 32/2026 Ebazpena, zeinaren bidez onesten baita eraikinen ikuskapen teknikoaren (EIT) egiteko norgehiagoka prozedura bidezko 2026ko dirulaguntzen deialdia.

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: www.infosubvenciones.es.

Lehenengoa.- Onuradunak

Oinarri hauetan jasotako dirulaguntzaren onuradunak honako hauek izango dira: bizitegi erabilera duten eraikinen jabeak edo gozamedunak diren pertsona fisikoak edo erkidegoak, baldin eta eraikinek berrogeita hamar urtetik gora badituzte edo katalogazio edo babes motaren bat badute, eta eraikinen ikuskapen teknikoaren egin ostean dirulaguntzen eskaera egiten badute.

Eskatzaileen betekizunak:

Pertsona fisikoaren kasuan: Arratzua-Ubarrundiako udalerrian errolatuta egon behar dute deialdiko urtearen aurreko urtarrilaren 1etik, eta han errolatuta jarraitu beharko dute deialdia ebatzen den arte.

Pertsona juridikoaren kasuan: Arratzua-Ubarrundiako udalerrian izan behar dute zerga egoitza, deialdiko urtearen aurreko urtarrilaren 1etik, eta hala jarraitu beharko dute deialdia ebatzen den arte.

Udalarekiko zerga betebeharren ordainketa egunean edukitzea eta harekin inongo zorrik ez izatea dagokion deialdia behin betiko ebatzi arte.

Bigarrena.- Xedea

Oinarri hauen xedea da udalerriko eraikinen ikuskapen teknikoari (EIT) dagokion txostenaren kostua zati batean ordaintzeko Arratzua-Ubarrundiako Udalak bere eskumeneren barruan ematen dituen dirulaguntzen prozedura arautzea eta sustatzea.

Hirugarrena.- Oinarri arautzaileak

Eraikinen ikuskapen teknikoaren (EIT) egiteko dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak udalbatzaren 2020ko urriaren 26ko bilkuran aldatu eta urtarrilaren 8ko 2/2021 ALHAOn argitaratu ziren.

Laugarrena.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak

Diruz lagundu daitezke EIT egitearen ondorioz 2025eko azaroaren 14tik 2026ko azaroaren 14ra bitartean izandako gastuak (deialdia egiteko garaian indarrean dagoen araudian ezartzen diren baldintzak bete beharko ditu ikuskatze horrek), baldin eta ez bada lehenago haietarako dirulaguntzarik eskatu.

Bosgarrena.- Laguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntza egindako jardueraren aurrekontuaren ehuneko 50era artekoa izango da; familia bakarreko etxeen edo etxebizitza atxikiaren kasuan, gehienez ere 150,00 eurokoa, eta jabe erki-degoen kasuan, gehienez ere, 200,00 eurokoa.

Gehieneko muga ez da aplikatuko dagozkion adjudikazioak egin ondoren aurrekontu partida agortzen ez bada. Kasu horretan, geratzen den kopurua modu proportzionalan banatuko da baldintza guztiak betetzen dituzten eskaeren artean, baina ezingo da gainditu egindako gastuaren ehuneko 90.

Aitzitik, esleitutako kreditua ez bada nahikoa aurkeztutako eskaera guztiei erantzuteko, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzionalki murriztuko da guztiei erantzun ahal izateko.

Seigarrena.- Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak oinarrien eranskinean ageri den ereduan egin behar dira, eta oinarrietan jasotako dokumentazioa ere aurkeztu beharko da, eta aurkezteko epea 2026ko azaroaren 15ean bukatuko da.

Zazpigarrena.- Eskaerari erantsi beharreko agiriak

Normalizatutako dirulaguntza eskaera, behar bezala beteta, I. eranskineko ereduaren arabera.

Eraikinen ikuskapen teknikoaren epean egin duen enpresak emandako fakturaren kopia eta hura ordaindu izanaren ordainagiria.

Eraikinen ikuskapen teknikoaren txostena udal bulegoetan entregatu behar da, berandue-
nez eskaera egiteko unean. Indarrean dagoen araudiaren arabera eginga izan behar du txosten horrek.

Diru sarrera egitea nahi den kontuaren erakundea eta IBANa, eta titularra, dirulaguntzaren onuraduna ez bada.

Durana, 2026ko otsailaren 12a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE